

Mondragon Unibertsitateko Smart-Light, Imagine Cup 2011 nazioarteko finalerdietan partaide

2011/05/11

Imagine Cup ikasleentzat munduan antolatzen den lehiaketarik garrantzitsuena da. Lehiaketara teknologiako eta diseinuko munduko ikaslerik nabarmenenak biltzen dira, trebetasun sortzaileak, berritzaileak eta iraultzaileak dituztenak. Lehiaketa Microsoftek antolatzen du urtero, eta aurtengo finala New Yorken jokatu da.

Teknologia txertatuaren garapenaren kategorian, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasle hauek dira taldeko kideak: Aitor Akizu, Josu Lopez eta Javier Sierra, eta mentorea Xabier Mardaras da, Embedded Technologies Innovation Center zentrokoa; taldeak Smart-Light proiektuarekin parte hartuko du finalerdian.

Hirietan kontsumo energetikoa murrizteko eta baliabideen erabilera eraginkorra eta iraunkorragoa sustatzeko helburuarekin, taldeak hiri argiteria gestionatzeko sistema bat garatzea proposatzen du, sentsoreen bitartez une bakoitzean dagoen argi beharra jakitea eta intentsitatea kontrolatzea ahalbidetuko duena.



Aitor Akizu, Josu Lopez eta Javier Sierra Imagine Cup 2011 nazioarteko finalerdian daude